

opusdei.org

# **Javier Santurtun. Barakaldon sortutako margolaria**

Baserritik bankura eta bankutik  
artista izateari. Nola bizi  
kristautasuna lanbide berri  
honen bitartez

2008 Eka 18

## **Begiradatxo bat zure ibilerari**

1956ko abuztuan jaio nintzen  
Barakaldon. Retuertoko baserri  
zahar batean bizi ginen: Zuazoko

bidean kokatua zegoen, Vega de  
Ansionen, hauxe baratze, zelai eta  
kanaberadi sail bat baizik ez zenean.  
Nire aitak Babcock Wilcox-en lan  
egiten zuen... eta baratzean ere bai.

Retuertoko eskolan egin nituen  
ikasketak eta gero Batxilergoa  
Burtzeña eta Barakaldoko  
salesiarretan. Azkeneko ikastaroa  
egitean hil zen nire aita eta lan bat  
bilatzen hasi nintzen kontabilitatea  
ikasten nuen bitartean. Urte haietan  
Banketxetan lan egiteko oposizio bat  
edo beste izan ziren eta auzoko beste  
bi lagunekin Bilboko Banketxean  
sartu ginen administrari. 1974an  
zen. Orduan hasi nintzen ere pintura  
munduan murgiltzen dedikazio  
bereiziz. Eta urte hartan bertan ere  
ezagutu nuen Eretza gazteendako  
kluba, Opus Deiko kideek  
hirurogeiko hamarkadan hasitako  
ekimena.

Pinturan gero eta gehiago sartua nengoenez, Arte Ederretako sarrera prestatzen hasi nintzen eta COU ere egin nuen Gazteluetako gau-eskolan. Soldadutza bukatu eta urte bete geroago, Bilboko Banketxea utzi eta Arte Ederrak egiten hasi nintzen. Jose Alzuet, Gazteluetako Arte Plastikoetako irakasleak, berarekin lan egitea eskaini zidan; erakutsi nizkion nire arte lanak eta hasieratik animatu zidan aurrera egiten artearen alorrean.

Hemeretzi urteetan zehar pinturari dedikatu eta aldi berean Gazteluetako Plastika irakasle izan nintzen. Orain urte batzuk, alde batera utzi nuen ikastetxea arteari dedikazio osoa ematearren. Eta abentura horretan sartuta nago oraindik

Nola ikusten duzu bizitza artearen ikuspuntutik?

Gehienetan, artistei buruz izaten den kontzeptua, errealitateatik nahiko urrun dauden topiko batzuetan oinarritzen da. Lan guztietan bezala, artean ere mota desberdinetako pertsonak daude. Bai neu, bai nire ezagunak diren beste gizon-emakume artistak, hangoak eta hemengoak, pertsona normalak eta arruntak gara, nabarmenkeria berezirik gabekoak. Honetan lan egiten dugu gustukoa dugulako eta benetako bokazio profesionala bezala hartzen dugu. Alde askotatik beste edozein profesio bezalakoa da, baina egia da desberdina dela ere: artea egiteak pertsona osoa barruan sartzen du, konpromisoa izugarria da: kreazio jardueraren grinak momentu zoragarriak ematen dizkizu eta mila ordu sarrarazten dizkizu... baina oso txarrak ere bai, askotan ez baitzaitu betetzen, azkenean inoiz ez baitzara iristen bilatzen duzun helburura, beti motz geratzen zara.

Mota honetako lanak, gehienetan gogo bizi bat (“tentsio” berezia ere bai) sortzen du bizitzan eta eguneroko jardueran. Zure eginkizuna bizibidea irabaztea baino askoz harago doan lana baita. Lan honetan, balio edo irabazi handiena, zure lanak egitean aurkitzen duzu. Gozamen hau da bereziak sentitzera eramaten gaituena. Gutxik ulertzen dute hori kanpotik ikusita. Eta horrek eramaten gaitu bizitzan jarrera edo planteamendu ez hain konbentzionalak edukitzea.

Adibidez, mundua nagusitzen duen ekonimizismoaren eraginaren pean dauden pertsona askok (merkataritza legeak bakarrik onartzen dituzte) ezin sinetsi dute artista batek jartzen duen esfortzua eta denbora ia salezina den obra batean. Ezta azkenik, ez duela dirua irabazteagatik egin sinesten badute, funsgabea edo zentzu gutxikoa dela ustez, gutxietsi egingo dute. Nahiz eta, ez gutxi batzuk bakarrik, beren

barnean, inbidia diote bizitzeko modu horri, aberats edo boterutsu izan gabe, “gizarteko helburu eta balio” batzuen gainetik egote horri.

## **Nola santutzen da norbera artearekin eta artista bizitzarekin?**

Honetan, edozein beste girotan bezala, uste dut bere kristau sinesmenarekin koherente izan nahi duena, gora-behera guztietan Jainkoaren gogoko izan eta bai hari, bai besteei zerbitzatzen saiatzen dela. Gure mugak ditugula jakinez, baina baita ere aurrera jotzeko gogo bizia eta grazia, santutze eginkizun horri naturaltasun handiz begiratzen zaio: gero eta gehiago jabetzen zara zure Aita Jainkoak ia pisu guztia daramala zure egunei giza xarma eta naturaz gaindiko balioa ateratzen. Oso aberasgarria deritzot hau guztia “antzeztua” izatea nire lanaren ingurugiroan, nire “estudioaren” pareten artean; eta nire profesioaren

barruan gogo bizia sortu eta  
ardurarazten nauten gauza guztiak  
baterabildu daitezen arteak, modu  
batez edo bestez, sumarazten digun  
betetasuna iristeko kristau  
helburuarekin, beste bizitzan,  
herriotzaren ondoren.

## **Zer egiten du Opus Deik Barakaldon?**

Barakaldon bizi garen Opus Deiko  
kideen artean barietate handia dago:  
adin guztietako jendea, lanbide oso  
desberdinetakoa etab. Eta bakoitza,  
bai gizonezkoak, bai emakumezkoak,  
bere bizitza hiritarrean, familiakoan,  
lagunartean etab., iruditzen zaion  
modu onenean jardungo dela uste  
dut: ahal duen neurrian, gauzak  
ondo egiten saiatuz, ezagunekin  
leialak izanez eta kristautasunaren  
lekukotasun erakargarria emanaz.

Ezagutzen dut ere bertatik hasieran  
aipatu dudan gazteendako Eretza  
klubak egiten duen heziketa lana.

Zer egiten du klub honek  
Barakaldoren alde? Adibide gisa esan  
dezaket Eretzan ikasi dudala  
balioesten hainbat eta hainbat giza  
eta kultur gai, ikaslearen lana,  
gauzak ondo egiteko egiazko ardura,  
kirola eta bizitza aurrean izan behar  
dugun kirol jarrera, zailtasunak eta  
helburuak, pertsonenganako  
harreman adiskidetsuak, hemendik  
pasa diren gazteak nola hazi eta  
heldu diren ikusteak ematen duen  
poza, beren gurasoekin harremanak  
izatea, heziketa lanak sortzen dituen  
gertaera pilak... Edozeinek baino  
gehiago ikasi dut gozatzen eta  
dibertitzen “lelokeriak” eginez  
besteekin ondo pasatzearren hainbat  
eta hainbat ospakizun eta jaialditan.  
Hori eta pila bat gauza gehiago  
egunez egun gauzatuak, beti besteen  
alde pentsatuz, inguruan dituzunak  
zoriontsuak izan daitezen bilatuz.  
Eretza ezagutzen duten Barakaldoko  
hainbeste pertsonak hori bera esan  
dezakete.



Bizitzari eta jendeari baikorki begiratzea Ebanjelioan oinarrituriko helburua da. Eta lan hau ezingo litzateke aurrera eraman, uste dut, hainbestearainoko eskuzabaltasun eta itxaropenez, ez balego pertsona eta munduaren ikuspegi kristau baten oinarritua.

---

pdf | document generated  
automatically from [https://opusdei.org/  
eu-es/article/javier-santurtun-  
barakaldon-sortutako-margolaria/](https://opusdei.org/eu-es/article/javier-santurtun-barakaldon-sortutako-margolaria/) (2025  
Api 20)